

2009ko ekainean bidaiarien sarrerak % 4 gutxitu dira

Ekainean igarotako gau kopurua % 2 jaitsi da

EUSTATen datuen arabera, 2009ko ekainean 173.675 bidaiarik hartu zuten ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino ia 8.000 gutxiagok eta, horrenbestez, % 4 gutxiagok. Aurreko urteko hilabete beraren aldean, Arabara heldutako bidaiarien kopurua % 13 gutxitu da eta Bizkaira heldutakoen kopurua % 5; Gipuzkoan, aldiz, aurreko urteko ekaineko datuen antzekoak eman dira.

Etorritako Estatuko bidaiarien kopuruak % 1eko aldaketa negatiboa izan du eta atzeritik etorritakoenak % 11 egin du atzera, aurreko urteko hilabete beraren aldean. Araban (-% 9) eta Gipuzkoan (-% 2) gutxitu egin da Estatutik etorritako bidaiari kopurua, baina Bizkaian kopuru hori hobetu egin da (% 2). Atzeritik etorritako bidaiarien kopurua % 4 gehitu da Gipuzkoan, baina gutxitu egin da Araban (% 24) eta Bizkaian (% 19).

Estatuko bidaiarien artean gehitu egin da Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Galiziatik etorritakoen kopurua, batez ere; eta murriztu egin da Katalunia, Madril eta Kantabriatik etorritakoenak. Atzeritarren kasuan, bidaiari gehiago etorri da Iberoamerikatik, Holandatik, Belgikatik eta Erresuma Batutik batez ere; Alemania, Frantzia eta Portugaldik, aldiz, bidaiari gutxiago etorri da.

2009ko ekainean 322.983 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko ekainaren aldean gaua igaro dutenen kopurua % 2 gutxitu da, guztira 5.600 gau gutxiago igaro baitituzte. Urte batetik bestera, igarotako gau kopuruaren bilakaera negatiboa izan da Araban (% 7) eta Bizkaian (% 3); alabaina, Gipuzkoan bilakaera gehitu egin da (% 2).

Batez besteko egonaldia hiru lurraldeetan gehitu da: aurreko urteko ekainean batezbesteko hori 1,81 egunekoa izan zen eta aurtengo ekainean 1,86 egunekoa, Euskal Autonomia Erkidego osoan. Araban eta Bizkaian % 7 eta % 3 gehitu dira, hurrenez hurren: batez besteko egonaldia 1,78 egunekoa izan da. Gipuzkoan, aldiz, % 1eko gehikuntza eman da; guztira 1,97 eguneko egonaldia.

Plazen okupazio mailak % 9ko beherapena izan du; aurreko urteko ekainean % 47,06koa izan zen eta aurtengo ekainean % 43,05koa. Gelen okupazio maila % 7 jaitsi da. Okupazio maila biek Euskal AEko hiru lurraldeetan izan dute eragin negatiboa, nahiz eta modu ezberdinean eman eragin hori lurralde bakoitzean.

Nekazaritza-turismoko establezimenduak: gutxitu egin dira bidaiarien sarrerak (-% 1) eta gaualdiak (-% 6)

Ekainean 9.761 bidaiari izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-turismoetan, hots, aurreko urteko hilabete berean baino % 1 gutxiago; bidaiari kopurua % 7 gehitu da Araban, baina % 4 gutxitu da Bizkaian eta % 2 Gipuzkoan. Estatuko bisitarien kopurua % 3 gutxitu da Euskal AEn: % 5 igo da Araban, baina Bizkaian % 1 eta Gipuzkoan % 8 murriztu. Euskal AE osoan egon den atzerritar kopurua % 23 gehitu da.

Ekainean 22.989 gau igaro dituzte bidaiariek Euskal AEko nekazaritza-turismoetan; % 6 gutxiago aurreko urteko hilabete beraren aldean. Urtetik urterako hazkunde-tasak positiboak izan dira Araban (% 4) eta Bizkaian (% 1); Gipuzkoan, ordea, % 13 murriztu da tasa hori.

Bidaiarien batez besteko egonaldia laburtu egin da Euskal AE osoan, 2008ko ekaineko batezbestekoaren aldean. Aurreko urtean 2,48 egun ziren eta aurtengo ekainean 2,36 izan dira.

Plazen eta gelen okupazio tasak biak murriztu dira Euskal AEn (% 14), hiru lurraldeetan eragin negatiboa izan delako; baina beherapen handienak Gipuzkoan eman dira.

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	06 2009	%	06 2008	%	Δ %	06 2009	%	06 2008	%	Δ %	06 2009	%	06 2008	%	Δ %	06 2009	%	06 2008	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	322.983	100	328.597	100	-2	44.068	100	47.490	100	-7	144.021	100	148.260	100	-3	134.894	100	132.847	100	2
Estatukoak	214.420	66	211.660	64	1	33.483	76	34.638	73	-3	94.905	66	92.267	62	3	86.032	64	84.755	64	2
Atzerrikoak	108.563	34	116.937	36	-7	10.585	24	12.852	27	-18	49.116	34	55.993	38	-12	48.862	36	48.092	36	2
Hiriburua	190.952	59	199.454	61	-4	28.648	65	35.572	75	-19	90.269	63	92.696	63	-3	72.035	53	71.186	54	1
Litoral	44.211	14	39.244	12	13	-	-	-	-	-	13.404	9	13.257	9	1	30.807	23	25.987	20	19
Barnealdea	87.820	27	89.899	27	-2	15.420	35	11.918	25	29	40.348	28	42.307	29	-5	32.052	24	35.674	27	-10
BIDAIARIEN SARRERAK	173.675	100	181.695	100	-4	24.685	100	28.357	100	-13	80.486	100	85.093	100	-5	68.504	100	68.245	100	0
Estatukoak	117.880	68	119.270	66	-1	19.018	77	20.939	74	-9	55.696	69	54.339	64	2	43.166	63	43.992	64	-2
Atzerrikoak	55.795	32	62.425	34	-11	5.667	23	7.418	26	-24	24.790	31	30.754	36	-19	25.338	37	24.253	36	4
Hiriburua	104.618	60	111.144	61	-6	15.704	64	20.460	72	-23	51.208	64	54.003	63	-5	37.706	55	36.681	54	3
Litoral	22.582	13	19.572	11	15	-	-	-	-	-	7.870	10	7.230	8	9	14.712	21	12.342	18	19
Barnealdea	46.475	27	50.979	28	-9	8.981	36	7.897	28	14	21.408	27	23.860	28	-10	16.086	23	19.222	28	-16
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,86		1,81		3	1,79		1,67		7	1,79		1,74		3	1,97		1,95		1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	43,05		47,06		-9	37,49		45,32		-17	41,05		45,26		-9	47,87		49,96		-4
Hiriburua	46,74		53,02		-12	37,33		52,75		-29	44,76		49,84		-10	55,35		57,97		-5
Litoral	47,42		45,00		5	-		-		-	35,74		38,16		-6	55,27		49,53		12
Barnealdea	35,35		38,29		-8	37,79		31,91		18	36,13		39,60		-9	33,41		39,36		-15
BETETZE-MAILA GELAKA	54,19		58,34		-7	46,08		53,63		-14	54,68		58,08		-6	57,00		60,62		-6
Hiriburua	60,74		66,29		-8	49,52		65,37		-24	61,17		65,05		-6	66,93		68,61		-2
Litoral	55,08		51,79		6	-		-		-	43,49		46,98		-7	62,73		54,56		15
Barnealdea	43,14		47,83		-10	39,20		34,55		13	46,29		49,81		-7	40,96		51,87		-21
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	22.989	100	24.496	100	-6	3.745	100	3.602	100	4	7.583	100	7.491	100	1	11.661	100	13.403	100	-13
Estatukoak	19.575	85	20.263	83	-3	3.519	94	3.381	94	4	6.078	80	6.299	84	-4	9.978	86	10.583	79	-6
Atzerrikoak	3.414	15	4.233	17	-19	226	6	221	6	2	1.505	20	1.192	16	26	1.683	14	2.820	21	-40
BIDAIARIEN SARRERAK	9.761	100	9.880	100	-1	1.790	100	1.666	100	7	3.205	100	3.356	100	-4	4.766	100	4.858	100	-2
Estatukoak	8.763	90	9.067	92	-3	1.679	94	1.600	96	5	2.857	89	2.894	86	-1	4.227	89	4.573	94	-8
Atzerrikoak	998	10	813	8	23	111	6	66	4	68	348	11	462	14	-25	539	11	285	6	89
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,36		2,48		-5	2,09		2,16		-3	2,37		2,23		6	2,45		2,76		-11
BETETZE-MAILA PLAZAKA	20,48		23,81		-14	16,73		18,25		-8	20,55		21,83		-6	22,01		27,44		-20
BETETZE-MAILA GELAKA	23,33		27,02		-14	18,82		20,31		-7	22,96		24,65		-7	25,53		31,52		-19

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Fax +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp